

LABek berriro ere bat egiten du doktoretza aurreko ikertzaileen mobilizazioekin

LABek, aurrekoetan bezala, doktoretza aurreko ikertzaileen asanbladak, **martxoaren 24an, asteazkena, 13:00etan, Ibaetako campuseko Barriola gelategian** deitutako kontzentrazioarekin bat egiten du. Izan ere, beraien aldarrikapenak LABek defendatzen duen ikertzaileentzako [aldarrikapen zerrenda](#) orokorrean jasota daude. UPV/EHUko langileei deia egiten diegu kontzentrazio honetara joateko.

Bestalde, aurreko [komunikatu](#) batean aipatzen genuen moduan, [Senatuak, pandemiaren eragina arintzeko, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Estatuko Sistemaren eragileen deialdietako kontratuak luzatzea onartu du](#). Kontratuak bost hilabetez luzatu daitezke, gehienez ere, beti ere, 2021eko apirilaren 2a eta 2023ko apirilaren 1a artean amaitzea aurreikusita badaude.

Kontratu kode berria bai, baina....**Doktore aurreko ikertzaileen eskubideak
NOT FOUND!!!!****LAN duina
Bizi DUINA**